

Berrobiko Ostatu taberna, herritarren eskura berriro ere

Duela gutxi hasi zen Angel Mora-Gil urretxuarra zerbitzua eskaintzen eta «oso pozik» dago; laster Elduaingo Kontzeju taberna kudeatuko du //6

Unai Iribar maila onean ari da 23 urtez azpiko Giroan

Hiru etapa falta dira proba amaitzeko, eta txirrindulari ibartarra «oso gustura» dago esperientzia «aberasgarria» izaten ari delako //7

«Gurpildun aulkian dagoen orok egin dezake lan nahi duenean»

JON GALARRAGA
TLHII-KO IKASLE OHIA

Nerabezaroan geratu zen goiaztarra gurpildun aulkian; lehenbailehen onartzea ezinbestekoa dela aurrera egiteko esan du //4

«Norberak bere buruari jarritako mugak gainditzea da kontua»

HAIMAR MALKORRA
TLHII-KO IKASLEA

Garun paralisia izanik Tolosaldea LHII-n ziklo bat egiten ari den lehen ikaslea da; hezitzaile baten laguntza izaten du //5



Igor Zapirain, Pili Legarra eta Beatriz Unzué Ibarako, Asteasuko eta Amasa-Villabonako alkateak, atzo. IRATISAIZAR

Sentsazio «gazia», Osasun sailburuarekin bilera egin ostean

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak esan dio Gotzone Sagardui Osasun sailburuari Tolosan eginiko bileran beraiek ere egon behar zutela, «Tolosaldea 28 udalerrik osatzen baitute» //3

HERNANI LANBIDE HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII - CIPF INNOVACIÓN SOCIAL

Prestakuntza, lanbidea, etorkizuna



Tren geltokitik 5 minutura
eta autobusetik 2 minutura.

egin
**AURRE-
-MATRIKULA**

**MAIATZAren 31tik
EKAINAren 18rarte**

**OINARRIZKO
LANBIDE HEZIKETA**

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze- lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa

943 55 19 58

idazkaritza@hernanilah.eus

Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILANHII

www.hernanilah.eus



Tolosako Gizon Taldeak topaketak antolatu ditu

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Gizon Taldeak jardunaldiak antolatu ditu ekainaren 12 eta 14rako genero berdintasunaz eta inposatutako maskulinitateaz gogoeta egiteko. Gizon Taldeak antolatu ditu topaketak, Tolosako Udaleko Berdintasun sailarekin lankidetzan eta Tolosatzeko eskola irekiaren barruan.

Bi urte daramatza martxan Tolosako Gizon Taldeak eta hiru astez behin egiten ditu bilerak. Topaketa hauekin ezagutza eman nahi dute taldea eta maskulinitate ereduaren inguruan kontzientziatu nahi dituzte gainerako gizonetakoak. Bide batez, Euskal Herriko gainerako gizonen taldeen bilgune izango da Tolosa, beste herrietan lanketa bera egiten ari diren taldeak gonbidatu baitituzte ekimenara.

TOPAKETAK

Ekainak 12, larunbata

10:00 – 13:00. Kultur etxean gizonentzako tailerra gidatuko dute Asier Baglietto Gabilondok eta Jokin Beristain Lopez de Zubiriak. *Gizonen zaurgarritasuna aldaketarako giltzarri* izenburua eramango du tailerrak.

16:30 – 18:30. Hiruki Larroxa kolektiboko Ibai Fresnedok *Zer eta nola egin dezakegu gizonen berdintasun-*

Larunbatean egingo dira ekitaldi gehienak. Bi tailer antolatu dituzte. Goizean, kultur etxean egingo dena gizonetako bideratuta dago, eta aldiz arratsaldekoan, gizon eta emakumeek parte hartu ahal izango dute. Zerkausian egingo dira arratsaldeko ekitaldiak eta horma-irudi bat pintatzeaz gainera, Bigarren Hezkun-

nerako bidean? tailerra gidatuko du Zerkausian.

19:00 Bertso saioa Amaia Agirre, Bixente Gorostidi eta Ekaitz Goikoe-txe bertsolariarekin.

Ekainak 14, astelehena

19:00. Maskulinitate eta gizon taldeen inguruko *El Circulo* Ivan Roizen eta Alvaro Priantzeren dokumentala ikusi ahal izango da kultur etxean.

tzako ikasleek gaiaren inguruan egin dituzten lanak erakutsiko dituzte. Topaketa hauekin amaitzeko, astelehenean, kultur etxean, *El Circulo* dokumentala eskainiko da eta ondoren solasaldia egingo dute inguratzen direnek.

Ekitaldietan parte hartzeko aurrez eman beharko da izena, 670 22 98 12 telefono zenbakian.

Ikastaro sorta antolatu dute Amarotz auzoan

Erredakzioa Tolosa

Amarotz Auzo Elkarteak askotariko ikastaroak antolatzen ari da hemendik aurrera. Ekainerako eskaintza zabala egin dute eta izen emateko aukera zabalik dagoela aurreratu dute elkarteak.

Besteak beste, bihar, 18:30etik 20:00etara automasaje ikastaroa eskainiko dute Amaroako auzo etxean eta izena eman nahi dutenek 629 43 32 50 telefono zenbakira hots egin beharko dute. Zenbaki horretan eman daiteke izena, baita ere, ekainaren 18an antolatutako haurrentzako masaje ikastaroan.

Bestalde xakean ikastaroak ere jarriko dituzte martxan auzo

etxean. Ekainaren 15ean, 16an, 17an, 21ean eta 22an izango dira saioak. Hastapen mailakoek 17:00etatik 18:45era jasoko dute ikastaroa eta hobekuntza saioan parte hartu nahi dutenek, berriz, 18:30etik 19:45era izango dute hitzordua. Amaroako auzo etxeko 689 31 08 43 telefonoan *whatsapp* egin beharko da izen ematea.

Arte tailerra eskaintzeko asmoa ere badute Amarotzen. Teknika ezberdinak ikasiko dituzte bertan: pintura, akuarela, olio, eta pastela, besteak beste. Ostegunetan izango dira saioak eta parte hartu nahi dutenek, honako telefono zenbaki honetara hots egin beharko dute: 605 74 92 47.

Bizilabe Tolosaldean izena emateko epea zabalduta dute

Tolosaldea Garatzenek eta Elhuyarrek sustatutako aisialdi eskaintzan 10 eta 14 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute

Erredakzioa

Tolosaldea Garatzenek Elhuyarrek batera sustatutako Tolosaldeko Bizilabe aisialdi eskaintzaren datorren ikasturteko edizioan izena emateko epea ireki dute. Bigarren urtez, herriko gazteen artean zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa, ekintzailetasuna eta sormena bultzatuko dira.

2021eko urritik aurrera 10 eta

14 urte bitarteko gazteek tailerretan parte hartu eta proiektuak egin ahal izango dituzte Amasa-Villabonan eta Tolosan. Hurrenez hurren, Gaztegunean eta Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuan izango dira saioak. Amasa-Villabonan astearteetan egingo dituzte jarduerak LH 5-6ko ikasleek 17:15etik 18:45era eta DBH 1-2koek 18:45etik 20:15era; Tolosan, berriz, ostegunetan egingo dituzte tailerrak or-

dutegi berdinarekin: 17:15etik 18:45era LH 5-6 mailakoek eta 18:45etik 20:15era DBH 1-2 mailakoek. 10 euro ordaindu beharko du ikasle bakoitzak hileko.

Ikasturtean zehar, alor desberdinetako zientzia eta teknologia esperimentuak egingo dituzte eta talde lanean proiektuak garatuko dituzte, ikertzaile profesionalen gidaritzarekin. Bizilabe Tolosaldea egitasmoan, tokian tokiko ikastetxe, herriko eragile,



Alkizako frontoian martxoan egin zen zientzia bizipen saioa. ATARIA

ikerketak zentro edota enpresek dihardute lanean eta zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematika ezagutza bultzatzea dute helburu.

Bide horretan, Bizilabe Tolosaldeko gazteek eskualdeko ikerketak zentroak eta enpresak bisitatuko dituzte eta ikertzaileekin harremanetan izango dira. Horrez gain, hainbat zientzia jardura antolatuko dituzte herriko eragileekin elkarlanean. Horren erakusle, ikasturte honetan arrakasta handiz ospatu den Nazioarteko Neska eta Emakume Zientzialarien Eguna, herrietan egin diren zientzia bizipenak

edo eskualdeko irakasleekin egin diren trebakuntza saioak.

IZEN EMATEAK ZABALIK

Ikasturte berrian izena emateko lehenengo txanda ekainaren 8tik 20ra egongo da zabalik eta horretarako <http://bizilabe.elhuyar.eus> helbidera jo beharko da. Ekainaren 20tik aurrera, berriz, libre geratu diren plaza horietan izena emateko aukera zabalik utziko da. Programa abenduaren bukaerara arte dago bermatuta momentuz, eta parte hartzaile kopuruaren arabera jarraituko du urtariletik 2022ko ekainera bitartean.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

"18. Apatthaerreaka" hirigintza esparruko "18.1 Tolosa-Ibarrako lurra" azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.

Tolosako Udalbatzak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, hitzez hitz ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen:

Behin betiko onespina: "18. Apatthaerreaka" hirigintza esparruko "18.1 Tolosa-Ibarrako lurra" azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2021eko ekainaren 4ean, 104. alean.

Bestalde, Plan Berezia udaleko web orrian kontsultatu daiteke.

Tolosa, 2021eko ekainaren 7an

Alkatea

Olatz Peon Ormazabal



IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Tolosako Casa Julian jabetxean zerbitzaria behar dugu. Bidalizuen curriculumak lan eskaintza erreferentziarekin helbide honetara: casajulian1951@gmail.com.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Osasun ereduaren inguruko lanketa irakurtzeko eskatu diote

Gotzone Sagardui Osasun sailburuarekin bilera egin zuen, atzo, Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak; desadostasuna adierazi diote asteen Tolosara egindako bisitaren harira

Irati Saizar Artola Herria

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduko hainbat kidek bilera telematikoa egin zuten Gotzone Sagardui Osasun sailburuarekin, atzo, Ibarako udaletxean. Tolosaldeko ospitale publikoaren gaia jarri zuten mahai gainean, eta bilera amaitu berritan, inpresio «gaziarekin» utzi zituela esan du Igor Zapirain Ibarako alkateak. Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak osasun ereduaren inguruan egin duen lanketa bidaliko dio sailburuari, eta bere ekarpenaren zain geratu dira.

Zapirainez gain, Beatriz Unzueta eta Pili Legarra, Amasa-Villabona eta Asteasuko alkateek ere hartu zuten parte bileran, eta Sagarduirekin batera, Nestor Arana Osakidetzako ekonomia eta finantza zuzendaria, Rosa Perez Osakidetzako zuzendari nagusia eta Nerea Urien Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea aritu ziren pantailaz beste aldera.

Lehenik eta behin, Zapirainek azaldu duenez, Sagardui beraien desadostasuna adierazi zioten aste honetan Tolosara egin duen bisitan beraiek aintzat ez hartzeagatik: «Mahai gainean jarri diogu aste honetan bertan Tolosara etorri dela ospitale publikoa non kokatuko den ikustera, eta bitartean, gu telematikoki hartu gaituela, aurrez aurre eseri beharrean». Tolosari dagokion kokalekua delako bildu zela



Ibarako udaletxeko bilera gelan egin zuten bilera telematikoa, atzo, Gotzone Sagardui Osasun sailburuarekin. I. SAIZAR

KOKALEKUA EGOKIENA IZATEA ESPERO DUTE

Maite Arana eta David de Miguel, Larraul eta Berrobiko alkate sozialistak «pozik» agertu dira Tolosaldeko ospitale publikoa eraikitzeko urratsak ematen jarraitzen dutela ikusita. Maider Lainez Andoaingo alkatearekin kaleratutako ohar batean adierazi dute ospitalea koka-

tzeko aukeratutako lursaila egokiena izatea espero dutela, «Tolosaldeko eskualdeak behar dituen osasun behar guztiak ase behar baititu».

Are gehiago, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote plan funtzionala amaitu arte gainerako kokapenak behin betiko ez baztertzeko: «Plangintza horren bidez, erantzuna emango zaie Tolosaldeko herritarren osasun premiei ez ezik, erreferentziatzeko biztanleriaren eta laguntza eskaeraren ezaugarri ere. Bestal-

de, jaurlaritzak kontuan hartu behar du datozen urteetan premiek izan dezaketen bilakaera».

Ospitalearen diseinua zehaztuko duen plangintza datorren uda baino lehen amaituta egotea espero dute eskualdeko alkate sozialistek, eta esan dute Osasun sailburuak beraiekin izandako bileran horrela hitz eman zuela. Honenbestez, Eusko Jaurlaritzak lan erritmo horrekin jarraitzea eskatu dute, Osakidetzak proiektua lehiaketara aurtan ateratzea nahi baitute.

Olatz Peon alkatearekin azaldu zien.

Kokalekua non izan erabakitzeke garaian, ordea, alkateen mahaiko kideek ere bertan egon behar zutela azpimarratu du Ibarako alkateak. «Kokaleku hori Tolosari dagokio, baina zein da bere funtsa? Tolosaldeko ospitale publiko bat egitea da, eta horregatik diogu aste honetan Tolosan egin duten bileran Tolosaldeko alkateok ere bertan egon behar genuela».

OSASUN EREDUARI BEGIRA

Kokalekuari baino osasun ereduari ematen dio garrantzia Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak. Orain dela 10 urte inguru Osasun sailak jorratu zuen txosten batetik abiatuta, lanketa bat egin dute osasun ereduari buruz: «Osasun eredu komunitario bat behar dugu, eta Osasun sailak egindako lanketa eguneratu dugu». Sagardui txosten hori bidaliko diote, eta irakurri ostean, ekarpenak egiteko eskatu diote, «ea posible den etorkizuneko Tolosaldeko osasun publiko horretan eredu komunitarioa txertatzea». Zapirainek esan duenez, irakurriko duela erantzun zien sailburuak, baina esan zien «osasungintza bere osotasunean beraien eskumena» dela.

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak lanean jarraituko du, «herriak zer dioen entzuteko». «Tolosaldea ez da herri bakarra, 28 udalerrik osatzen dugu».

Zortzi positibo atzeman dituzte azken egunean

TOLOSALDEA // Asteartetik asteazkenera, Ibaran hiru positibo, Tolosan bi eta Anoetan, Asteasun eta Iruran bana zenbatu dituzte. Osasun sailak emandako datuen arabera, 7.564 test diagnostiko egin zituzten atzo, eta horietatik, 254 (%3,4) positiboak izan ziren. Tolosa kolore larri jango eta Amasa-Villabonak horian jarraitzen du.

Elkartasun materiala eskatzeko azken eguna, ekainaren 13a

LIZARTZA // Lizartzako Sare herritarrek presoan aldeko kamiseta, banderola eta musukoen eskaera kolektiboa egingo du, «elkartasunak mugarik ez duelako»; horretarako, eskariak ekainaren 13a baino lehen egin beharko dira. Eskariak egiteko sarelizartza@gmail.com helbidera idatzi edota 606 170 844 zenbakira deitu beharko da.

Profesionaltasun ziurtagiria lortzeko informazioa, bihar

AMASA-VILLABONA // Mendeko pertsonen gizarte eta osasun arreta emateko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko doako informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskainiko ditu Bidez Bide elkarteak, *Ikasi zaintzeko* kanpainaren baitan. Bihar izango da, Villabonako Subijana etxean, 16:00etatik 18:00etara.

Leidorreko zinema saioetako bonu kanpaina abiatu dute

TOLOSA // Jada martxan da Leidorren eskaintzen diren zine emanaldietarako bonuen kanpaina. Orain arte bezala, 10, 20 eta 30 saiotarako bonuak jarri dituzte salgai, eta abenduaren 31ra bitarte erabili ahal izango dira. Bonuak kutxabank.es/leidorantzokia web orri sortu berrian eros daitezke. Bonuez gain, sarrerak ere eros daitezke bertan.

Gonbidapen gutxi batzuk geratzen dira dantza emanaldirako

ALEGIA // Kultur eskaintza zabal antolatu dute Alegian, eta lehen ekitaldia Sutarri dantza taldearen emanaldia izango da. Bihar eskainiko dute, 19:00etatik aurrera. Gonbidapen gutxi batzuk geratzen dira, eta eskuratzeko, sutarri.dantza-taldea@gmail.com helbidera edo 616 648 413 zenbakira idatzi beharko da.



JOSU ARTUTXA

«Gurpildun aulkian egon ala ez, guztiok eskubide bera dugu»

JON GALARRAGA ZENDOIA TOLOSALDEA LHII-KO IKASLE OHIA

Nerabezaroko garairik onenean zegoela, gurpildun aulkian geratu zen Jon Galarraga goiaztarra; horrek, ordea, ez zion ikasten jarraitzeko mugarik jarri, eta soldadura ikastaroa burutu berri du Tolosaldea LHII-n

Josu Artutxa Dorronsoro
Bidania-Goiatz

Goi mailako administrazio eta finantza zikloa egin zuen Jon Galarragak (Bidania-Goiatz, 1985) Tolosaldea LHII-n. 16 urterekin moto istripua izan zuen, eta gurpildun aulkian ibiltzen da geroztik. 10 urte baino gehiago daromatza administrazio eta finantza lanetan, eta duela gutxi, soldadura ikastaroa burutu du. **Oraindik ere, gauza askotarako beharko duzu laguntza, ezta?**

Oraindik gauza guztiak ez daude

guretzako egokituta. Leku askotan oraindik asko falta da egiteko. Hala ere, beti saiatzen naiz laguntza eskatu beharrik gabe moldatzen. Bakarrik atera dadila, besteen aldetik.

Ikasterako orduan ere, ezbehar handia izango zen.

Egia esan, bai. Inoiz ez naiz ikasle sutsua edo gogotsua izan. Eta beraz, egoera honen ondorioz, zerbait ikastera behartuta aurkitu nintzen. Istipurik izan ez banu, argi daukat ez nuela administrazio zikloa egingo. Ez dago jakiterik zer egingo nukeen. Edozein ikasketa egiten duzula, ero-

sotasuna da bilatu behar duzun lehen gauza. Zalantzak izan nituen, eta azkenean administrazio zikloa egitea erabaki nuen.

Istripuak eragina izan zuen, beraz.

Adin txarrean gertatu zitzaidan, oraindik oso gazte nintzela. Hala ere, psikologikoki ez zen horren kolpe handia izan, jada aulkian ibiltzen zen jende ugari ezagutzen nuelako lehendik, eta beraz, euren esperientziak ere ezagutzen nituelako. Ez zitzaidan oso gogorra egin. Ezinbestekoa da errealitate bat gehiago dela lehenbailehen onartzea, bestela, ez duzu aurrera egiten.

Zer dela eta aukeratu zenuen administrazio eta finantza zikloa?

Informatika zikloarekin eta administrazio zikloarekin izan nuen zalantza gehien. Garai hartan, informatika zikloak lan merkaturako irteerarik ez zuela ikusi nuen, eta horregatik erabaki nuen administrazio zikloa egitea. Bestetik, erosotasunagatik etorri nintzen hona. Tratua, gai-

nera, beti izan da oso ona; oso babestua sentitu izan naiz beti. Ikastetxeak egoera ezberdinetara egokitzen jakin du, eta arazok izan ditugunok, beti izan dugu laguntza.

Zer da ziklo horretan egiten zenuena?

Enpresa batean sartu eta gero, zein prozesu aurrera eramane behar genituen erabakitzen genuen. Proiektu ezberdinak egitea oso gustuko nuen, gainera.

Soldadura ikastaroan ere aritu zara orain.

Bi hilabeteko ikastaroa izan zen, urtariletik martxora. Goi mailako zikloa amaitu berritan, altzairu herdoilgaitzarekin lan egiten duen enpresa batean hasi nintzen lanean. Betidanik gustuko izan dut soldatzea, eta lankideak zeregin horretan ikusten nituen. Haurra nintzela ere eskulanetan aritzen nintzen, tarteka. Kapritxoak nuenez, ikastaroan izena ematea erabaki nuen, praktikatzeke aukera aproposa iruditu zitzaidalako.

Eta zure egoeraz jakitun, posi-

ble ikusten duzu etorkizunetan horretan lanean aritzea?

Bai, noski. Agian, oso nekagarria izan daiteke zortzi orduz aulkian eserita eta soldatzen aritzea. Gogorra da, eta postura aldetik ere deserosoa; gu, gainera, mugatuta gaude alde horretatik. Hala ere, aukera bat egon daitekeela iruditzen zait. Administrazioan lan egitea erosoagoa da, baina soldaduran aritzea, ordenagailu aurrean egotea baino erakargarriagoa da niretzat. Ezberdina da eta eginkizun bat baino gehiago izaten duzu. Aulkian geratu nin-

«Ezinbestekoa da errealitate bat gehiago dela lehenbailehen onartzea, bestela, ezin duzu aurrera egin»

«Gaitasuna izanez gero, gurpildun aulkian dagoen edonork egin dezake lan gustuko duen postu batean»

tzenean, soldadura ikastaroa egin nezakeela jakin izango banu, bi aldiz pentsatuko nuke zein ziklo egin. Izan ere, soldadurarena oso entretenigarria da.

Duela pare bat urte, orain erabiltzen dudana aulkia erosi nuen Valentziako enpresa batean. Aulki mota ezberdinak edota bizikletak muntatzen dituzte. Nik aurreiritzia nuen bertako langileak mugikortasun arazorik ez zuten langileak izango zirela. Bada, ia denek zuten ezbeharren bat, baita soldatzen ari zirenek ere. Hortaz, argi dago aukera bat badagoela. Ea eskualdean hala-ko lantegirik sortzerik dugun; beharra behintzat badugu.

Hortaz, zure egoera berean dagoen edozein ikasle egin dezake Lanbide Heziketako ziklo bat?

Bai, eta edonork egin dezake lan gustuko duen postu batean. Gaitasuna badu, zergatik ezin du ikasle horrek lanpostu bat bete? Pieza handiak mugitzeko, akaso, laguntza beharko genuke, baina egoerara egokitzen jakin behar da. Hori da gakoa. Beraz, gurpildun aulkian dauden ikasleek ere badute aukera; denok eskubide bera dugulako. Eta ez soldaduran bakarrik, industrializazio arloko edozein ziklotan baizik. Autsartzea da kontua. Askotan ez gara kontziente aukerak badaudela, eta erosotasuna handia dela. Institutuan egon nintzenean, nire egoerara moldatu behar izan zuten moldatu beharrekoa, baina horregatik, uneoro izan nuen babes handia. Oso gustura sentitu nintzen.

J.A.D. Berastegi

Muñagorri eskolan eta Orixe institutuan egin zituen derrigorrezko hezkuntzako ikasturteak Haimar Malkorrek (Berastegi, 2002). Gorpildun aulki elektrikoan mugitzen da, eta hitz egiteko arazak izan arren, indar handia erakusten du berarekin solasaldi bat izatean; are gehiago, kirolaz hitz egiteko bada.

Zer suposatzen du zuentzat gorpildun aulkian mugitu behar izateak, egunerokotasunean eta ikasterakoan?

Traba handia da, batez ere guretzat egokituta ez dauden lekue-tarako. Kasu horietan, laguntza behar izaten dugu. Hala ere, oro har, nahiko ondo moldatzen gara.

Ikasterako orduan, esaterako, orain arte ez dut arazorik izan. Aurten, ordea, Word, Excel eta gisa horretako programak erabiltzean, ezinean ibili gara, nire ez-behar bera duten pertsonentzat ez baitago programa horiek erabiltzeko sistemarik. Eskean aritu gara, behin eta berriz, eta beraz, hori egokitzea ere ikaragarri eskertuko genuke.

Nola sortu zen Lanbide Heziketan hasteko aukera?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasturtea amaitzeaz gurela, orientatzaileen bisita jaso genuen institutuan, etorkizunean zer egin argi ez genuelako. Niretzako proposamen bat zutela esan zidaten, interesgarria irudituko zitzaidana, eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan erdi mailako merkataritza zikloa egitea aholkatu zidaten. Bai niri, nire ingurukoei eta laguntzaileei ere, oso interesgarria irudituko zitzaidan, eta aurrera egitea erabaki genuen.

Zer egiten duzue ziklo horretan?

Aplikazio ezberdinak nola erabili ikasteaz gain, biltegi baten kudeaketak nolakoa izan behar duen ikasten dugu. Gai teorikoak lantzen ditugu, gero, horiek praktikara eraman ahal izateko. Baina, batez ere, proiektuetan oinarritutako zikloa da, eta beraz, lan ezberdinak egitea egokitzten zaigu, bakarka nahiz taldeka. Oso interesgarria izaten da. Egoera bat jartzen digute mahai gainean, eta hori nola kudeatuko genukeen, eta zein emaitza eta zein ondorio izango litzukeen zehazten saiatzen gara.

Aurtengo ikasturte amaieran, adibidez, Lanbide Heziketako tabernaren inguruko proiektu bat egin dugu. Taberna bat genuen institutuan, baina pandemia zela eta, alde batera utzi be-

«Esfortzu handiko lana izan zen niretzako hezitzaile bat topatzea»

HAIMAR MALKORRA AREJULA
TOLOSALDEA LHII-KO IKASLEA

Lanbide Heziketan ezohikoa bada ere, hezitzaile baten laguntza du Haimar Malkorra berastegiarrak; garun paralsiarekin jaio zen, eta iaz, erdi mailako merkataritza zikloa egiten hasi zen Tolosaldea LHII-n



JOSU ARTUTXA

har izan genuen. Baina aurten, irakasleek ondorengoa esan ziguten: «Eta berriro martxan jarriko bagenu?». Bada, egoera horri nola aurre egingo geniokeen lantzea izan da gure egitekoa.

Zure kasuan, laguntza gehigarria izaten duzu, ezta?

Bai, bai. Taxian egiten ditut etxetik instituturako joan-etorriak, eta institutuan hezitzaile baten laguntza izaten dut. Pertsona hori topatzea lan handia izan zen. Batxilergoan jarraituko banu, jada berrmatuta izango nuke hezitzaile bat izatea, baina Lanbide Heziketarako ez. Kasu honetan, traba handiak izan genituen Berritzeguneren (hezkuntzaren berrikuntzarako eta hobekuntzarako laguntza zerbitzua) aldetik. Euren ustez, behin



Lanbide Heziketan hasita, ez zegoidan hezitzaile izatea. Nik, ordea, laguntza hori beharrezkoa dut, eta beraz, esfortzu ikaragarria egin ondoren, jardunaldi osorako hezitzailea izatea lortu dut. Niretzako ezinbestekoa zen ondoan norbait izatea, eta Tolosaldea LHII-ri esker lortu dut hori. Ni naiz, garun paralsia edukita, ikastetxe honetan ziklo bat egiten hasi den lehen ikaslea. **Lehen ikasturtea amaitu ondoren, zer espero duzu bigarrenengorako?**

Bigarren mailan, otsailera bitartean izango ditugu klaseak. Ondoren, praktikak egitea egokituko zaigu. Oraindik ez dugu begiratu non egin ahal izango ditudan; horri buruz heziketan ari gara irakasleekin. Kontua da, niri ez dimala balio edozein lan bilatzeak;

«Batxilergoan jarraituko banu, jada berrmatuta nuke hezitzaile bat, baina Lanbide Heziketan ez»

«Niri ez dit balio edozein lan bilatzeak; zerbait ona bilatzea nahi dut, benetan aseko nauen lan bat»

zerbait ona bilatzea nahi dut, benetan aseko nauen praktikaldia bilatzea, alegia.

Beraz, gainerako ikasleen eskubide berdinak dituzula aldarrikatu nahi duzu, ezta?

Ez dago mugarik. Koska txikiak badira, baina ez dira traba handi bat. Tolosaldea LHII-n, gainera, beharrezko laguntza ematen digute nire antzeko arazoak dituzten ikasleei, eta beraz, norberak bere buruari jarritako mugak gainditzea da kontua.

Eta zer esango zenieke zalan-tza duten horiei?

Lanbide Heziketan izena eman dezaten animatuko nituzke. Gogo badute eta bere burua egin beharreko zikloarekin erlazionatutako lanpostu batean ikusten badute, ez dezatela zalantzarik izan. Aukera ikusiz gero, aurrera egin dezatela. Askok oztopo bat ikusten duten tokian, ez dago halakorik.

Ikasketez kanpo, baduzu beste zaletasun bat, ezta?

Oso gustuko dut kirola. Orokorrean, kirol guztiak gustatzen zaizkit, baina batez ere, futbola. Kirol kazetaria izatea nahiko nuke, futbol partida bat kontatzea baita txikitatik dudana ametsa. Hortaz, ahal izango banu edo aukera suertatuko balitz, kazetaritza ikasketak egingo nituzke.

Irati Saizar Artola Berrobi

Martxoaren 19an ireki zituzten berriro ere Ostatu tabernako ateak Berrobin. Kasu honetan, Angel Mora-Gil urretxuarrak hartu du zerbitzua aurrera eramateko ardura, eta lehen hila-beteak pasata «oso pozik» dagoela esan du, jaso duen babesa eta izan duen harrerarekin. «Ezin eskertuago nago berrobitarrekin, espero gabeko harrera izan dut». Orain badu beste erronka bat ere, Berrobitik gertu: Elduaingo Kontzeju taberna jatetxea ere berak kudeatuko du aurrerantzean eta irekitzeaz du zerbitzu berria.

Lagun baten bidez iritsi da Berrobira urretxuarra: «Udan Lizarrako kanpinean lan egin nuen, eta Berrobiko lagun bat ezagutu nuen; afaltzera Berrobira etorri nintzen batean esan zidan taberna libre zegoela eta nik hartzea aukera ona izan zitekeela». Alkatearekin hitz egin zuen ondoren, eta hartzea erabaki zuen. Ostalaritzan badu esperientzia kudeatzaile berriak, Urretxun bertan bi taberna eduki zituen, eta orain, apustu berria egin du Tolosaldean.

Ostatu taberna ireki berritan sukaldia itxita izan bazuten ere, dagoeneko hasi dira pintxoak, razioak, bokatak, pizzak edota plater konbinatuak egiten. «Karta zehatzik ez daukagu momentuz, baina bezeroak eskatzen duena prestatu badezagugu, gustura egiten dugu», dio. Taberna moduan funtzionatzen du, «trago bat hartu eta zerbait pikatzeko lekua da». Ostiraletan, gainera, pintxo potea egiten hasi dira. Trago bat hartzearekin pintxoak doan ematen dute eta astero, pintxo ezberdinak prestatzen saiatzen dira. Berezitasun bezala, eguneko ogia ere saltzen dute tabernan bertan.



Angel Mora-Gil da Ostatu tabernaren gidaritza hartu duena, eta Elduaingo Kontzeju ere berak kudeatuko du. I.S.A.

Ostatu taberna zabalik da, berriro ere, Berrobin

Bi hilabete eta erdi daramatza Angel Mora-Gil arduradun berriak Ostatu taberna kudeatzen; laster, Elduaingo Kontzeju taberna jatetxea irekiko du

Hiru urterako kontratua sinatu du udalarekin, eta esan du jendea eskaintzen duen zerbitzuarekin pozik badago, jarraitu egin nahiko lukeela. Herri handiago batetik dator Berrobira, baina gustatu zaio orain arte

ikusitu duena: «Herri txikia da, denek elkar ezagutzen dute eta gauza guztien berri izaten dute, horrek badu bere saltsa».

BERRIRO ERE MARTXAN

Denbora luzea egin du Ostatu

tabernak itxita, baina, hala ere, jendeak berriro ere tabernara joateko ohitura hartu duela baieztatu du kudeatzaile berriak: «Jendeak kontatu dida-nagatik behintzat, lehen ez ziren hainbeste etortzen, eta

orain batzuk egunero etortzeko ohitura hartu dute».

Orain arte, taberna dagoen lokala Solastoki erretirodunen elkartearen izena hartu du. Erretirodunen elkartetako lekua izan da urte askoan, eta kafe bat hartuz kartetan ibiltzeko ohitura izan dute askok eta askok. «Orain ere etortzen dira batzuk arratsaldeetan kartetan jolastera, baina orain guztiak nahasten dira, bai poteoan dabilzanak eta baita kartetan saioa egiten ari direnak ere», gehitu du.

ELDUAINERA JAUI

Berrobiko esperientzia ikusita Elduaingo Kontzeju taberna jatetxea ere hartzea erabaki du Mora-Gilek. Dagoeneko baditu giltzak eta ateak laster zabaltzea da asmoa. Kasu honetan, jatetxe zerbitzua eskainiko du bazkariak, eguneko menuarekin, eta afariak emanez. Gainera, etxebizitza ere berarekin dakar kontratuak eta Elduainen bizitzaren jartzea pentsatu du «gertutasunagatik».

Elduainen ere itxita egon da denbora tarte batez Kontzeju. «Beste tabernarik ez dago gainera, eta kokalekua primerakoa da; errepidea du ondoan, autobusak ere bertan uzten zaitu eta inguruko enpresentzat ere aukera bikaina da», esan du. Sei hilabeteko probaldia izango du lehenik, eta bai udala eta bai kudeatzailea konforme badaude, bi urte pasa arteko kontratua izango du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Gogoz hartu ditu erronkak, eta gogoz dago baita ere pandemiak ekarritako neurriak bertan behera uzteko: «Aldaketa asko izaten ari gara azken boladan, eta nahiko genuke lehenbailehen pandemia aurreko garaietara bueltatzea, horrela, ikusiko genuke geuk ere ea zerbitzuek funtzionatzen duten».

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Unai Iribar: «Esperientzia aberasgarria izaten ari da»

Laboral Kutxako txirrindulari ibartarra aurreneko postuetan helmugaratu da 23 urtez azpiko Italiako Giroko bi etapatan

Imanol Garcia Landa Ibarra

Laboral Kutxa taldeko Unai Iribar txirrindulari ibartarra 23 urtez azpiko Italiako Giroan parte hartzen ari dira, eta bi etapatan aurreneko hamarretan sartzea lortu du. Mundu mailan taldeko lehiatzen den afizionatu mailako proba garrantzitsuena da, eta Iribar gustura dago orain arte bizitzen ari denarekin: «Sekulako esperientzia izaten ari da. Hamar eguneko itzulia da, 23 urtez azpiko talde indartsuenekin, eta asko ikasten ari naiz. Paraje berriak ezagutuz, beste txirrindularitza mota bat ere ezagutuz, oso esperientzia aberasgarria izaten ari da».

Hirugarren etapan eguneko ihesaldian sartzea lortu zuen, eta azkenean bosgarren amaitu



Unai Iribar, lehen postuan, hirugarren etapako ihesaldian. ATARIA

zuen ibartarrak. Herenegun, sei-garren etapan, mendate bat zegoen azken partean, tropela txikitzen joan zen, eta azkenean 22 txirrindulari iritsi ziren batera helmugara eta hamargarren postua lortu zuen ibartarrak. Atzoko etapa 20 kilometroko mendate-

an bukatu zen, eta 18. postuan helmugaratzea lortu zuen. «Oso gustura nago orain arte lortutakoarekin, kontziente izanik ze talde eta txirrindulariren aurka ari garen lehiatzen», esan du Iribarrek. Hiru etapa falta zaizkie bukatzeko.

Sega ligako bigarrena, Altzon

Erredakzioa Altzo

Almitza Sega Elkartek antolatzen duen Euskal Herriko bakar-kako sega txapelketaren bigarren saioa igande honetan izango da, Altzon, 11:30ean hasita. COVID-19aren inguruko neurriak direla eta, ikuslerik ez da egongo.

Lehenengo saioa Zaldibian egin zen, aurreko larunbatean,

eta emakumezkoetan Alaitz Imaz hernialdetarra eta Ainara Otamendi ibartarra izan ziren lehen biak. Zazpi segundogatik geratu zen lehen postuan Imaz. Jugatx Agirre berastegierra bosgarren izan zen. Horiez gain, Altzon Amets Otegi gazteluarrak parte hartuko du.

Gizonezkoetan Mikel Lizartza tolosarra bosgarren izan zen, Amaur Arrospide leaburuarra

seigarren eta Jokin Garmendia anoetarra bederatzigarren. Gizon gazteetan, Arkaitz Gabirondo gazteluarra dago lehen postuan eta Iñigo Etxabe belauntzarra laugarrena da. Mutil gazteetan Auritz Alkorta asteasuarra dago lehen postuan. Neska gaztetxoetan Izadi Arrospide leaburuarra lehen postuan dago sailkatuta eta hirugarren doa Mireia Larreta leaburuarra.

Tolosalak mailari eutsi dio

I. Garcia Landa Tolosa

Gizonezkoen areto futboleko Tolosala taldeak datorren urtean Hirugarren Mailan jarraituko du. «Azkenean irailetik espero genuen helburu hori aste honetan lortu dugula jakinarazi digute eta oso kontentu gaude», esan du Martin Lakuntza taldekideak. Izan ere, bigarren fasean azken laugarren geratu zen talde tolo-

sarra eta azken taldea jaisteaz gain, Bigarren B mailatik jaisten zen euskal talde kopuruaren arabera beste hainbeste taldek maila galdu zezaketen. Azkenean, federazioaren erabakia izan da azken sailkatua soilik jaitea.

Datorren denboraldian, bestalde, klubak proiektu berezi bat jarriko du martxan: areto futboleko eskola. «Gure helburua da beste kiroletan bezala, areto fut-

bolean ere eskola bat izatea», zehaztu du Lakuntzak. «Garrantzitsua iruditzen zaigu haurrek areto futbola ezagutzeko aukera izatea». TEEPein batera ari dira proiektua lantzen, eta izena emateko aukera zabalik dago dagoeneko. Horretarako tolosaleskola@gmail.com helbidera idatzi behar da, eta interesatuek bertatik jasoko dute mezua jarraibideekin.

Eskualdeko lasterkariak daude faboritoen artean

Erredakzioa Tolosa

T3T maratona eta T2T mendi lasterketen eguna iristear da. Igandean 09:00etan aterako dira T3T egingo duten 300 lasterkariak, eta beste horrenbeste abiatuko dira 09:30ean T2T proba egiteko. Tolosako Trianguloa plazatik aterako dira, eta COVID-19aren inguruko neurriak direla eta, ezingo da publikorik izan inguruan.

Faboritoen zerrendari dagokionez, T3T proban, gizonezkoetan Hassan Ait Chaou billabonatarrek aurreko edizioan lortutako garaipena defendatuko du, eta aurkari gogor bat izango du, Ismail Razga, 2016an eta 2017an

irabazle izan zena. Emakumezkoetan ez dira aurreko edizioako podiumean izan zirenak egongo, baina aipatzekoa da Aitziber Ibarbia zizurkildarra eta Laiane Arrospide ibartarra bertan izango direla. T2T proban Oier Ariznabarreta izango da faborito nagusia gizonezkoetan eta Lurdes Oiartzabal emakumezkoetan. Oihana Zubillaga anoetarrak eta Enara Agote tolosarrak zeresana eman dezakete proba motzean.

Gogoz daude antolakuntzatik eguna iristeko, eta egunotan azken prestaketak egiten ari dira, besteak beste, bideak garbitzen. Eguraldi beroa egitea espero da, eta baliteke termometroa 30 gradura iristea.

Gurea da



Aulkitik

Leire Zubelzu

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Igandea eta partida. Helburua beti bezala 3 puntuak lortzea. Baina autobusera igo eta giroan nabari zen ez zirela edonolako 3 puntu.

Bakoitza berera: batzuk irakurketa, besteak unibertsitateko lanetara, musika, elkarrizketak... Buruan bueltaka seguru denak zutela partida garrantzitsua zettorrela Castejonen aurka.

Astero bezala neskek argitu zidaten zein zen ligako egoera. Castejonek gure modura helburu bakarra zuen: partida irabazi eta 3 puntuekin geratzea mailari eusteko. Baina argi zeukaten Tolosako neskek gureak izan behar zirela puntu horiek.

Castejonek sartu eta hura ez zen Tolosa: zerua urdin-urdin, garbi-garbi eta sekulako beroa. Autobuseko leihotik behera begira nindoala herri osoan ez nuen

la pertsona bakarra ikusi esango nuke. Halere, Imanol eta Iraitzek argi zuten hura ez zela aitzakia izango, ez beroa ez beste ezer. Maddik soluzio erraza jartzen die horrelakoei, botila ur edan beharrean, bat eta erdi eta listo.

Partida hasi zen eta lehenengo zatia aldeko, 0-1. Halere, entrenatzaileak ez zeuden guztiz konforme, markagailuak eta gol aukerak gorantz jarraitu beharra zuten bigarren zatiari segurtasunez eusteko. Iritsi zen urdinen bigarren gola eta hortik minutu batzuetara nafarrena. Azken minutuak luze, baina eutsi zioten markagailuari tolosarrek, lortu zituzten 3 puntuak eta nik dakidan batzuek lasai hartu zuten arnasa partida amaierako txistuek aditzean.

Tolosara buelta autobusean beste kontu bat. Neskak pozik, musika dena emanda eta kantari. Kantatzea egia esan ez da nabarmenezko beraien talentu bat, baina giroa sortzen eta umorez ez die askok irabaziko.

Ez dakit nik kasualitatea edo ez, baina bi goleatzaileek (Eider eta Helene) ohatila zapaldu zuten partida aurretik... Hortxe uzten dut! Eta taldeko porra eman nuen Ainararekin bat, igandean dena aldeko!

Animo neskak, azken txanpa denboraldia merezi bezala bukatzeko; eman gogor entrenamenduei eta gurea da hau! Ospatuko dugu, ziur izan!



OSTEGUNA, 2021EKO EKAINAK 10
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 10

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Anitz dantza taldearen ikuskizuna, LH2ko ikasleekin, 17:45ean, Mikelasagasti auditorioan.

Ikus-entzunezkoak

Tolosa. Zine foruma, 19:00etan, Leidorren: *Valhalla rising*.

Lizartza. Arnasa gara bideo emeraldia eta solasaldia, udaletxean, 18:30ean.

Erakusketak

Berrobi. Argazki lehiaketako argazkien erakusketa, liburutegian.

Tolosa. Munduarilehotxo bat, Ana Amigoren eskutik, Aranburun.

Tolosa. Lierni Mendiaren *Boligrafoz* erakusketa Aranburun.

Tolosa. Blok arte eskolako ikasleen lanak, Topic-eko Anbiguan.

Tolosa. Zeru argazki erakusketa, kultur etxeko pasadizoko beiratean.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

11:00. Elkarriketap

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Pintxo Pote (Myriam Lizarralde)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina Asier Imazek gidatuta: Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tarteak...

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irrati artean eginiko arratsaldeko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunkoa. E. Mujika. Eus-kal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Eguraldi eguzkitsua jarraipena izango du. Goizean hodeixkaren bat edo beste ikusiko bada ere, eguerdirako eguzkiak xurgatuko ditu eta arratsaldean eguraldi eguzkitsua eta ederra geratuko zaigu. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperaturak zertxobait egingo du gora, 25-26 graduan joaz goia.



Bihar. Giro bikainak jarraipena izango du. Egun osoan zehar goi-hodeiren bat edo beste agertuko bada ere, ez dute trabarik egingo eta eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Arratsaldean, bero-hodeiren bat garatuko da, baina ez du ekaitzetara joko. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, maximoak 25-26 graduan errendituko direlarik.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Zauden lekuan zaudela 'Ataria' jarraitzeko

Zitu informatikaren eskutik Lenovo M10 HD tabletaren zozketa jarriko da martxan bihartik ekainaren 20ra bitarte

Erredakzioa

TOLOSALDEKO ATARIA-k bere harpidedunak eta jarraitzaileak eskertu nahi ditu, proiektua babes-tu eta bere sentitzeagatik, eta horregatik, urtero moduan, udako zozketa berezia jarri du martxan. Harpidedunek nahiz ATARIA jarraitzen dutenek, Zitu informatikaren eskutik, Lenovo M10 HD tablet bikaina eskuratu ahaliko dute. Horrela, udan ere, Tolosaldean gertatzen denaren berri eskualdeko euskarazko hedabidearen webgunean era erosoan jasotzeko modua izango da, edonon egonda ere.

10 hazbete, Android 10 sistema operatiboa eta 64 GB-eko memoria duen tableta eskuratzeko zozketan bihartik aurrera parte hartu ahaliko da. ATARIA-ren erredakzioa 943 65 56 95 zenbakira deituta, edota *Ataria.eus* webgunearen bitartez egin beharko da. Bazkide direnek bazkide zenbakia jarrita egin beharko dute, eta Atarikide ez direnek, ZITU idatzi beharko dute zenbakia eskatzen duen gunean. Parte hartzeko azken eguna hurrengo igandea, ekainaren 20a izango da, asteburuetan webgunearen bitartez soilik parte hartu ahaliko da, eta pertsona bakoitzak ezingo du behin baino gehiagotan parte hartu.



Lenovo M10 HD tableta eskuratu ahaliko dute parte hartzen dutenek. ATARIA

ATARIA-k ekainaren 21ean egingo du zozketa parte hartu duten guztien artean, eta egun horretan bertan jarriko da harremanetan irabazlearekin. Zalantzarik izanez gero, ATARIA-rekin jar daiteke harremanetan, 943 65 56 95 telefono zenbakian, edo *ataria@ataria.eus* helbidean.



Tabletaren zozketaren inguruko informazio guztia eskuragarri dago QR kodea eskaneatuta.

Teknologia aurreratuena garatzen dugu gure bezeroak lehiakorragoak izan daitezen

Zitu
zure softwarea

943 215 270
zitu.net
info@zitu.net

zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

Iparragirre 200 urte, Urretxutik mundura
(Gorka Hermosa, Blanchard Strings, Marina Pardo eta Hodeiertz abesbatza)

Ekainak 11, 19:00etan, Leidorren

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

LASKORAIN IKASTOLAK

21-22 IKASTURTERAKO IRAKASLE HAUEK BEHAR DITU:

- **Filosofiako irakaslea:** Beharrezkoa izango da Filosofian gradua izatea eta Ingeleseko B2 titulua izatea.
- **Euskara irakaslea:** Beharrezkoa izango da Euskal Filologian gradua izatea.
- **Gaztelerako irakaslea:** Beharrezkoa izango da Filologia Hispanikoan gradua izatea latinaren ezagutzarekin edo Filologia Klasikoan gradua izatea.

Kasu guztietan, beharrezkoa da Bigarren Hezkuntzan lan egiteko irakaskuntza-masterra eta Euskarazko C1 titulua izatea.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira laskorain@ikastola.eus helbidera. Jasoko diren azken eguna, ekainak 15.